

## NAFARROAKO TOPONIMIA NAGUSIAREN NORMALIZAZIORAKO IRIZPIDEAK

### 1. SARRERA

Nafarroako toponimia nagusia normalizatzeko irizpideak finkatzerakoan aintzat hartu beharra dago, lehenbizi, euskara ez dela inoiz Administrazioaren hizkuntza izan, eta hau dela kausa, egun hamaika arazo ohi ditugula herri izen bat euskaraz zuzen nola eman behar den erabakitzeke denboran, tradizio administratibo hori eskas izatean herri tradizioan oinarritu behar baitugu, kasurik hoberenean, hizkuntza ofizialean idatzirik dauden agiriak begiratzea gehientsuenetan alferrikako eginkizuna delarik, non eta toponimia txikia aztertzeke ez den.

Bestalde, kontuan hartu behar da 1990. urtean karrikara atera zen *Nafarroako Herri Izendegia* izenekoak (NHI) bide egin duela, eta bertan biltzen direnek, edo hobeki erran, bertan biltzen direnetako batzuek, huts zenbait izanik ere, eragin handia izan dutela, bai euskarazko hedabideetan, bai euskaraz idatzitako lanetan, eta bai, buruenik, egunero- egunero izenak ikusten ohitu den jende arruntarengan. Guztiarekin ere, eta azterketarik egin ez dugun arren, uste dugu, lehenik, izen guztiek izan duten harrera ez dela —hainbat arrazoirengatik— berdina izan, eta, bigarrenik, hutsa, okerra dena, normalizatzerakoan erabili zen hautara aukeratutako irizpide batean oinarriturik dagoenetik bereizi behar dela. Hau batetik.

Bestetik, hondarreko urte hauetan egin den toponimia txikiaren bilketa ere oso kontuan hartzekoa da, lehenago ezagutzen ez genituen hainbat izen azalera, argitara ekarri dituelako, beste ezagun anitzen dokumentazio eta xehetasunak ematearekin batera. Adibidez, orain badakigu erdaraz *Urdánoz* deitzen dena euskaraz *Urdotz* zela Goñerriko eta inguruetakoko euskaldunen artean, *Zolina Zolia* zela Arangurengo euskal hitzunen ahotan, edo Longidako *Murillo* eta *Villanueva Murelu* eta (*H*)*iriberri* zirela gure hizkuntzan, inguruetakoko herrietan bederik.

Izenen hedadurari dagokionez, erran beharra dago euskara beti eskolatik eta zabalkunderako onuragarri zatekeen (komunika)bide mota guztietarik bazter egon denez gero, izenok gehienbat ingurumarian ibili izan direla. Hauantzina gertatzen zen, baina gaur egun oraindik ere bai, hedabideen eta mass-medien garai honetan, *Iruñea*-rekin adibidez, izen gero eta ezagunagoa den arren.

Errandakoa gogoan harturik zehaztu behar dira toponimo nagusien normalizaziorako irizpideak, kontuan edukiz irizpide hauetako batzuek bide egin duten izen horietako batzuen kontra joan daitezkeela, eta kasu horietan aukeratu beharko dela. Honelakoetan zuhurtziak erran beharko digu zein aldaera den hobestekoa.

## 2. IBAR IZENEN NORMALIZAZIOAZ

Herri izenen normalizazioaz mintzatzeraz igaro aitzinean, ibar izenen euskarazko erabileraz ere zerbait erran nahi genuke, zenbaitetan behinik behin arazo-emale handiak direlako, hizpidean hain maiz hartzen ez baditugu ere.

2.1. Ibarrek direla eta, badira arazoak lehenik erdarazko “val, valle” euskaraz nola eman eta gero aukeratutako izen hori nola deklinatu erabakitzeke garaian. Gure ustean izena finkatua badago arazoa aski —ez osoki— konpondua dago: har bedi izen ohiko edo tradizioko hori. Adibidez, *Aranguren*, *Bertizarana*, *Esteribar*, *Ibargoiti*... aspaldiko izenak dira, euskaraz eta erdaraz berdin ibiltzen direnak, eta, beraz, arazorik ez lukete eman behar.

2.2. Beste talde batean daude erdaraz eta euskaraz diferentexek direnak: *Valderro / Erroibar*, *Valdegoñi / Goñibar*, *Goñerri*, *Valdeollo / Olloibar*, *Ollaran*... Hauen euskarazko izena aspaldikoa da eta, hortaz, arazo handirik ez dago hizkuntza honetan erabiltzeko. Gehienez ere, zenbaitetan azaltzen zaizkigun bi aldaeretako zeini ematen diogun lehentasuna erabaki beharko dugu: *Goñibar* vs. *Goñerri*; *Ollloibar* vs. *Ollaran*... Honelakoetan koska lehentasuna aldaera dokumentatuei ala biziei eman behar zaien erabakitzean dago.

2.3. Beste multzo batean euskaraz “haran”, “ibar” edo “bailara”-rik gabe ibili direnak sar daitezke: *Arakil*, *Basaburua*, *Baztan*, *Larraun*... eta beste hainbat. Hauetan, gure irudian, eta baldin beharra badago, “ibar” izenaz baliatzea da egokiena, eta erabilera finkatua ez dagoenez gero, bereiz idaztea, aposizio moduan, *Arakil ibaia* edo *Larraun ibaia* bezala. Hortaz, *Arakil ibarra*, *Baztan ibarra*, *Larraun ibarra*... eta beste.

Egia da “ibar” hau, “haran” bera bezala, orain ez dela emankorra toponimia nagusian, baina egia da, orobat, ohiko bidea izan dela gure artean, *Artzibar* (< *Artzi* + *ibar*), *Bertizarana* (*Bertiz* + *harana*) edo *Gulibar*-ek (*Gulia* + *ibar*) frogatzen duten moduan, “bailara”, guk dakigula, inoiz azaltzen ez den bitartean (ikus *OEH*-k izen honetaz dioena). Beraz, eta zilegitasunaren aldetik, uste dugu ez dagoela inolako oztoporik “ibar” edo “haran” erabiltzeko, bestelako testuinguruetan erabil daitekeen “bailara” beste testuinguru horietarako utzirik. “Ibar” edo “haran”, bata nahiz bestea, berdin erabil litezke, baina uste dugu aukeraketa egin behar dela, eta dagoeneko eta *de facto* egina dagoela, Euskaltzaindia bere *NHI* “ibar”-en alde azaldu baitzen, hainbat haran izen normalizatzean.

2.4. Liburu hori moldatzerakoan, gutiz gehienetan, honela jokatu zen: ibarreko herri batek eta ibarrak berak izen bera izanez gero, bigarren honi “ibar” itsasten zitzaion. Honela bada, *Atetz (ibarra)*, *Longida (ibarra)*, *Xulapain (ibarra)* normalizatu ziren batetik, baina *Eguesibar*, *Erronkaribar*, *Etxauribar*, *Lizoainibar* bestetik, adibidez. Bigarren jokamolde hau bat dator ohiko erabilerekin: *Artzi (herria) / Artzibar (ibarra)*, *Goñi (herria) / Goñibar*, *Goñerri(a) (bailara)*, *Gulia (herria) / Gulibar (ibarra)*... nahiz bestelako *-ibar-*du-nak ere badiren, *Esteribar*, erraterako.

2.5. Deklinatzeari dagokionez, uste dugu *ibar* aurreko izenari eratxikia ematen denean izen berezizat hartu eta deklinatu beharra dagoela, *Erroibar*, *Esteribar*-en tankerakoekin egiten den bezala. Hortaz, *Erroibarrek*, *Erroibari*, *Erroibarren* (jabego genitiboa eta inesiboa), *Erroibartik*, *Erroibarrera*, *Erroibarkoa*, *Esteribarrek*, *Esteribari*, *Esteribarrendako*, *Esteribarren*, *Esteribartik*, *Esteribarrera*... eta abar erran beharko dugu. *Ibarra* toponimotik bereiz ibiltzen denean, ordea, izen arruntzat jo dezakegu, eta halakotzat deklinatu: *Arakil ibarrak*, *Arakil ibarrari*, *Arakil ibarrean*, *Arakil ibarretik*, *Arakil ibarrekoa*. Beste aukera bat haran izenari leku genitiboaren hondarkia gaineratzea da (*Arakilgo ibarra*, *Arakilgo ibarrean*...), baina sinpletasunaren eta erraztasunaren izenean uste dugu aurreneko bidea dela hobestekoa.

2.6. *Herri-*dun izenen deklinatzeko modua dela-eta, ezin da, gure iritzian, erantzun orokorra eman, eta kasuz kasu erabaki beharra dago. Erraterako, *Deierrin*, *Deierrira*, *Ergoienerri*, *Ergoienerri* ibili beharko ditugu, baina *Estellerriarendako*, *Estellerriarekin*, *Iruñerriak*, *Iruñerriari*, *Iruñerrian*... e.a., hondarreko bi izenok haranaz goragoko alderdiak adierazten badituzte ere. Dena den, joera izan behar luke bukaeran artikuludun aldaera erabiltzekoa.

2.7. Batzuetan “haran” edo “ibar” bailararen izenaren barruan opatzen dugu, osagaitzat, *Bertizarana*-n edo *Esteribar*-en konparaziorako; honelakoetan arazorik ez dago, eta alferrikakoa litzateke horien ondoan “ibar” edo “haran” ematen hastea. Ez da ordea hain alferrikakoa bailararen izena bailara horretako herri baten (maila herrikoian ari gara, ez legearen ikuspuntutik, besteak beste horrelakorik egiteko gai ez garelako. Hau da, ez zaigu inporta herri hori legez udal beregaina den, kontzejua den edo beste zernahi) izenarekin bat datorrenean. Adibidez, *Aranguren* edo *Oibar* bailara eta herri izenak dira aldi berean; honelakoetan, gure irudiko, eta beharra badenez gero, “ibarra” ibili behar genuke.

2.8. *Ibar* izenei dagokienez, tokian tokiko aldaerak hobetsi behar direla uste dugu (ikus ezaugarri dialektalen inguruan beherago dioguna): *Txulapain* beraz, ez *Xulapain*.

2.9. Euskara ibiltzen ez den alderdietan, izen berriak proposatzea ongi dakusagu, egoera berriak hala eskatzen duenean, bailaraz gaindiko eremuak izendatzeko, oinarritako euskal eredu ongi finkatuak hartzen badira: *Tafalle-*

*rria, Tutererria... Cf. Estellerría, Iruñerria... Azken aldi honetan zenbait autorek Erromantzatua ere ibili dute, erdarazko Romanzado-ren baliakidetako.*

2.10. Bide beretik, “beheko partea” eta “goiko partea” adierazteko posizioak erabiltzea zilegi dela uste dugu, beti ere euskarazko ereduatan oinarri harturik. Adibidez, *Ameskoabarren / Ameskoagoien, Urraulbeiti / Urraulgoiti* erabil daitezke, *NHI*-k urratu bidetik (cf. *Ollobarren / Ollogoien*), edo *Basaburu Nagusia / Basaburu Txikia* (cf. *Zizur Nagusia / Zizur Txikia*). Honelakoak herrien arlora ere eraman daitezke: *Mutiloabeiti / Mutiloagoiti* (cf. *Eritzebeiti / Eritzeagoiti, Ziabeiti / Ziagoiti...*).

2.11. Bukatzeko, Nafarroan hain berezkoa den *zendea* hitza ere erabili behar da, egun Iruñerrira mugaturik dauden batasun ezagunak izendatzeko.

### 3. HERRI IZENEN NORMALIZAZIOA

3.1. Aurren-aurrena euskarazko aldaeratzat euskaldunok azken mendeotan euskaraz mintzatzerakoan ibili izan ditugun izenak proposatu behar direla erran nahi dugu. Hemen, jakina, aldea izanen da euskara galdu berria den alderdi batetik euskara XVI edo XVII. mendean galdu zen beste alderdi batera, eta hau ere kontuan hartu beharko da erabakiak hartzeko orduan.

3.1.1. Euskaldunok azken mendeotan zer ibili dugun jakiteko, lehenbizi, euskaraz idatzitako testu guztiak jorratu behar dira, zoritxarrez herri izen asko euskarazko idazkietan agertzen ez badira ere. Gainera, eta txistukariei dago-kenez, konparazione, arazoak izan ditzakegu testu bateko izen baten nolakoa finkatzeko garaian, baina hau, dena den, kontu orokorra da, eta onetsi beste biderik ez dago. Bestalde, herri izen bat aipatzen duen idazleak eskualdekoa izan behar du, edo harremanak eduki behar izan ditu herria kokatzen den eskualdearekin, bestela informazioa erdal iturrien bitartez ikasi izanen baitu gehienetan.

3.1.2. Testuekin batera, eta hauek baino are garrantzi handiagoa duela, toponimia txikia aztertu beharra dugu, hor ikusten baita herri izenak alderdi bakoitzean nola erabiltzen ziren. Gainera, era honetara askoz toponimo nagusi gehiagoren berri jakinen dugu, testuen bidez baino. Dena den, batak ez du beste bat baztertzan, eta elkarren osagarritzat har daitezke.

3.1.3. Egungo euskaldunen erabilera ere oso inportantea dela uste dugu, hemen ikusten baita aspalditik heldu izen horien gaurko egoera zein den. Guztiarekin ere, testuez elekatzean erran moduan, lekuan lekuko edo inguruetako hiztunei galdegin behar zaie, ez urrutikoei, eta hala eta guztiz ere kontuz ibili beharra dago, euskaldunok izan dugun akulturazio prozesua onomastikaren arloan ere bizi-bizia izan delako.

Urrutiko hiztunak soil-soilik aztergai hartu nahi den herri edo ibarrarekin harreman estuak izan dituztenean galdekatu behar dira. Konparaziorako, Zairaitzuko azken euskaldunek altxunbidearen inguruetakoa edo hurbileko hainbat herriren euskarazko aldaerak ibili izan dituzte: *Galipentzu, Irunberri, Ledea, Oibar, Zarrakaztelu, Tutera...*

3.1.4. Nolanahi ere, ahoz jasotako izen horiek normalizazio prozesu bat iragan behar dute, maiz dauden-daudenean ezin direlako aldaera normalizatu-tako hartu (*Ledia* → *Ledea*, *Oibarre* → *Oibar*, *Tutra* → *Tutera...*).

3.2. *NHI* egin zenetik urte mordoak igaro da, eta sarreran erran dugun bezala, ikerketa asko egin da harez geroztik. Badira oraindik, alabaina, euskaraz nola deitzen ziren seguru ez dakigun zenbait herri, *Guirguillano, Otiñano* edo *Villamayor*, erraterako, eta aurrenekoaren kasuan *\*Girgillao* erraten zela uste badugu ere (cf. erdaraz *-ano* / euskaraz *-ao*, *-o* duten toponimo nagusi ugariak), ez dugu dakigunez, horren frogarik. Beste zenbaitetan susmoa bada, edo susmo hutsetik haratago doan zerbait, baina segurtasunik ez, ordea. Maila honetakoak dira, konparazione, *Villatuerta* eta *Los Arcos*-en euskarazko izentzat eman diren *\*Arandibarren* eta *Arkueta*, hondarreko honen kasuan *NHI*-ko *Urantzia* alde batera utzi behar dela irudi baitu (*Urranci* dugu Iruñeko katedraleko agiriak biltzen dituen José Gofiñi Gaztambideren *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona. 829-1243* liburuko 30. agirian).

Honelakoetan geroko ikerketak erran beharko digu herri izen horiek euskaraz nola erabili izan diren (toponimia txikia edota testuak lekuko), eta honen arabera aldatuko ditugu euskarazko aldaera normalizatuak. Hemen aintzako hartu behar da aldaketan aritze hori, apeta eta nahikunde hutsez egiten ez delarik, jakina, ez dela inola ere desohoregarria euskararendako, hizkuntza honen eta gaztelaniaren egoera, hainbat alderditatik, osoki diferenteak direlako, aipatuko ez ditugun arrazoi askorengatik. Gainera, ukitu beharreko izen horiek gutxi batzuk besterik ez dira izanen.

3.3. Beste arazoa lekuko bakarra duten herri izenek sortzen dutena da, latinez erraten zen bezala, *unus testis nullus testis* irizpidea ezar baitaiteke honelakoetan. Erran nahi da, euskarazko forma behin bakarrik dokumentatu denean, zer egin behar da? Nola jokatu behar dugu? Gure ustean izen horiek ezin dira, oro har, aintzat hartu. Adibidez, guk *Etaio* bere horretan utziko genuke, *Etaiu* bihurtu gabe, oker ez bagaude honen lekuko bakarra dugulako.

Dena den, hemen ere salbuespenak egin daitezke, izenek zer aldakuntza jasan duten. Konparazione, *Artaxobidea*-ren azpian dagoen herri izenarekin nola jokatu beharra dago? Alegia, *Artaxoa* hautatu beharra da edo lekuko gehiago ez dugun bitartean *Artaxona* hobetsi behar dugu? Ziurtasun maila antzekoa duen beste izen bat Ibargoitiko *Abínzano* da, *NHI*-n *Abintzao* normalizatu zena. Gure irudiz honelakoetan lekuko bakar horrek izena korrante nagusiaren barrenekoa dela frogatzen du, eta horregatik sudurkaririk gabeko aldaera hautatu beharra dago, gutiz gehienetan. Zalantzakoen multzo honetan

sartu behar dugu *Arbonies* izena ere, Caro Barojak dioenez (*Materiales*, 1990, 136) *Arbontze* moduan ibili izan dena (cf. *Sarriés / Sartze, Uscarrés / Uskartze*).

3.4. Beste alde batetik, berdinak diren izenak, bestelako arrazoi linguitikorik ez badago (euskalki kontua izan daiteke, edo beste zeinahi) berdin idatziko dira. Konparazione, *Zizur* biek berdin idatzirik agertu behar lukete, edo dauden *Etxarri* edo *Zuhatzu* guztiak. Gogor samarra baita, bestela, eta zentzu(komun)aren kontrakoa, Arakilen edo Larraunen *Etxarri* dena kilometro bazuk beheitiago, *Etxauribarren*, *Echarri* izatea, erraterako.

3.5. Herri izenak normalizatzerakoan alde batera utziko dira aldaera zaharkituak. Zaharkitua zer den eta zer ez den erabakitzea ez da beti erraza, euskara aspaldixko galdu zen Nafarroako alderdi zabal batean izenen euskarazko aldaerak ere aspaldixko dokumentatzen direlako, ez XIX edo XX. mendeetan. Nolanahi ere den, eta salbuespenak salbuespen, arau orokor bezala XVI. mendetik aitzina agertzen diren formak hobetsiko dira, lehenagokoen aldean. Adibidez, Deierriko erdarazko *Grocin Gorozin* edo *Grozin* normalizatu beharko dugu, ez *Goroziain*, eta Zaraitzuko *Jaurrieta* herri izena *Ihaurrieta* edo *Jaurrieta* eman beharko dugu, ez *Eiaurrieta*.

XVI. mendea aukeratzeko arrazoiak bat baino gehiago dira:

- Erdi Aroa bukatua zen, eta hau dudarik gabe muga kronologikoa da.
- Notario protokoloak garai honetan hasten dira gehienbat, ez lehenago.
- XVI. mendean Nafarroako euskara bere punturik gorenean zegoen, hedaturari dagokionez, gerokoaren aldean behintzat.

3.6. Beste aldetik, eta aldaera zaharkituak bazter utzi behar diren bezala, neurri handi batean euskarak bizitu duen egoera soziolinguistikoari —hizkuntza ofiziala ez izateari, kultura bideetatik kanpo egoteari, eskoletan irakatsia ez izateari, hedabideetan oraintsu arte present ez egoteari...— leporatu behar zaizkion aldaera laburtuak ere alde batera utzi beharrak dira. Adibidez, *Abaurregaina* (-a), *Abaurrepea* (-a) normalizatu behar dira ez ez *Aburregeina* (-a), *Aburrepea* (-a); *Areso*, ez *Aiso*; *Altsasu*, ez *Al(t)su*; *Aurizperri*, ez *Auzperri*; *Beruete*, ez *Beute*; *Elgorriaga*, ez *Elgorgia*; *Gerendiain*, ez *Gerein* (Erroibar); *Goizueta*, ez *Goizuta*; *Ibiltzieta*, ez *Ibizta*, *Irañeta*, ez *Irinte*; *Ituren*, ez *Itun* edo *Ituin*; *Larrasoña*, ez *Lasuin*; *Lizarragabengoa* (-a), ez *Lixarrango(a)*; *Olatzagutia* (-a), ez *Olazti*; *Orbaizeta*, ez *Orbaizta*; *Orreaga*, ez *Orria*; *Otsagabia* (-a?), ez *Otsagi*; *Sunbilla*, ez *Sunbil*; *Sagaseta*, ez *Sagasta*; *Saragueta*, ez *Sauta*; *Tutera*, ez *Tutra*; *Urdiain*, ez *Urdin*... Honek ez du erran nahi ahoz aldaera laburtu horiek ezin erabil daitezkeenik, baina hemen hain segur ere erregistroz mintzatu behar genuke.

Puntu honen barrenean sar ditzakegu soinu baten galera izan duten izenak, bokal arteko igurzkari ahostuna edo dardarkari bakuna gehientsuenetan: *Arano*,

ez Aranon berean ibiltzen duten *Aano*; *Eratsun*, ez *Eatsun*; *Jauntsarats*, ez *Juantsaats*; *Madotz*, ez *Maotz*; *Mugiro*, ez *Muiro*...

3.7. Aldaera laburtuak bazter utzi behar badira, inola ere orokorrak ez diren zenbait aldaketa fonetiko izan dituzten aldaerak ere baztertu beharrekoak direla uste dugu. Honela bada, Leitza bertan ibiltzen duten *Leitze* ezin da izen normalizatutako proposatu, ez eta Arakilen erabiltzen diren *Uberte* eta *Zubetzu* ere. Hauen ordainez, ezbairik gabe, *Leitza*, *Uharte* eta *Zuhatzu* eman behar dira. Orobat, Ergoieneko *Dorrou*-ren ordainetan *Dorrao* proposatu behar da, Aezkoan ibiltzen diren *Gareoa* eta *Ireberri*-ren ordeztu *Garaioa* eta *Hiriberri*, eta Erroibarko *Antxoa* edo *Antxua*-ren ordeztu *Aintzioa*. Hau begi bistako kontua da, eta aski onartua dago, bai toponimia txikian eta bai nagusian, aldakuntza horietaz gabetutako formak onestea.

3.8. Nafarroan izen bera duten herri batzuk badira: *Ekai*, *Etxarri*, *Hiriberri*, *Lizarraga*, *Zuhatzu*... Hauek bereizteko normalean bailararen izena ibiltzen dugu, baina arazoa sortzen da hau non paratu behar den erabakitzeko denboran, aukera bat, hurrenkera bat baino gehiago baitugu. Arruntak haranaren izena aitzinetik edo gibeletik paratzea dira, hau da, aipatu ditugun herri izenen kasuan ordenaketa hauek: *Exxauri-Etxarri / Etxarri-Exxauri // Larraun-Etxarri / Etxarri-Larraun*; *Aezkoa-Hiriberri / Hiriberri-Aezkoa // Arakil-Hiriberri / Hiriberri-Arakil // Artzi(bar)-Hiriberri / Hiriberri-Artzi(bar) // Deierrri-Hiriberri / Hiriberri-Deierrri // Arakil-Ekai / Ekai-Arakil // Longida-Ekai / Ekai-Longida // Arakil-Zuhatzu / Zuhatzu-Arakil // Itzagaondo-Zuhatzu / Zuhatzu-Itzagaondo*. Hirugarren aukera leku genitiboaren morfema sartzea da, aurretik nahiz atzetik: *Larraungo Etxarri / Etxarri Larraungoa, Zaraitzuko Espartza / Espartza Zaraitzukoa*, erraterako.

Homonimoen sail honetako izen guztiak ez daude maila berean gure ustean. Adibidez, *Etxarri-Aranatz* edo *Uharte-Arakil* aski iharturik eta finkaturik daudela dirudi, eta berdin Nafarroa Behereko *Donibane-Garazi*, nahiz inguruetan, aldaerak aldaera, *Etxarri*, *Uharte* edo *Donibane* besterik ez ohi den erabili. Kasu hauetan zuhurrena finkatutako hurrenkera horiek onartzea dateke, baina beste kasu anitzetan ez dira, aitzinetik, gauzak hain garbi ikusten. Errate baterako, zer hobetsi behar dugu, *Arakil-Hiriberri* edo *Hiriberri-Arakil?*, *Zaraitzu-Espartza* edo *Espartza-Zaraitzu?* Honelakoetan balirudike euskal elkarretaren legeek aurreneko bidera garamatzatela, hots, *Aezkoa-Hiriberri*-ren tankerakoak hobestera, baina, beste aldetik, aurren-aurrena herriaren izenak azaldu behar duela dirudi, bai errepide seinaleetan eta bai testuetan, eta beraz, eta alderdi honetatik, bigarren aukerak direla onestekoak. Beharbada lan serio baten beharrean gaude hemen. Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak, *Espartza-Zaraitzu* eta *Etxarri-Larraun*-en moduko segidak hobesten ditu, eta guk ere biderik praktikoena hau dela uste dugu, finkatutako horietatik aldentzen ez direlako, besteak beste.

3.9. Maiz erdaraz ibiltzen den aldaerak eta euskaraz ibiltzen denak ez dute zerikusi etimologikorik, edo bata bestearen itzulpena da: *Burguete / Aurritz; Espinal / Aurizperri; Monreal / Elo; Puente la Reina / Gares; Roncesvalles / Orreaga; Salinas / Getze; Salinas de Oro / Jaitz; Santesteban / Doneztebe; Valcarlos / Luzaide; Villanueva / Hiriberri... Pamplona / Iruñea*-ren kasua pittin bat korapilotsuagoa bide da. Inoiz, deizio bikoitzetik abiatuak, erdaraz forma bata hobetsi da, eta euskaraz bestea: *Viscarret / Gerendiain*. Honelakoetan, jakina, euskararazko aldaeratzat bigarren formak hautetsiko ditugu.

3.10. Herri izen batek euskaraz bi aldaera hurbileko (izan) baditu, erdarazko izenarekin bat datorrena aukeratuko da, bestea baztertuz, berdintasuna gauzak erraztu egiten baititu: *Markalain / Markelain* → *Markalain*. Nolanahi ere, berdintasuna bilatze horrek ez du izan behar gure azken xedea, edozein modutan eta edozein prezioetan lortu beharrekoa; esaera zaharrak dioenez, nori berea da zuzenbidea.

3.11. Izen batzuen kasuan izen ofizialaz gainera, inguruetan ibili —eus-kara galdu arte— edo ibiltzen den bigarren aldaera bat ere bada: *Eritze (Itza) / Eritzebeiti; Eritze (Atetz) / Eritzeagoiti; Etxarren (Girgillano) / Etxarrentxulo; Zabaltza (Ibargoiti) / Ibarzabaltza (bizirik oraindik)*. Honelakoetan biak hartuko dira ontzat, aipatu hurrenkeran. Hauen antzeko kasuan dago *Uztarroze* (aldaera erabilia, Erronkarin euskara galdu arte) / *Uztarrozgoiena* (dokumentazioan inoiz azaltzen den forma, beharbada Lizoainibarko *Ustarroz*-etik bereiztearren) pareta, baina bikoiztasun hau dokumentala baizik ez da, aspaldi samarrekoa irudi duenez —nahiz Erdi Arotik kanpo ere edireten dugun— eta ez dugu uste ontako hartu behar denik.

3.12. Zenbaitetan herri edo hiri baten euskarazko izentzat aspaldiko izena —egun bizirik badago herria edo hiria bera, bere osotasunean, adierazten ez duena— hartu da: *Estella / Lizarra; Villava / Atarrabia...* Beste maila batekoa dirudi *NHI*-n *Villafranca*-ren euskarazko kideztat eman zen *Alesbes* izenak.

Honelako aukeraketak, hainbat arrazoiengatik, hemendik landa ere egin izan dira (cf. *Vitoria / Gasteiz* edo *Vitoria-Gasteiz*), edo egin nahian dabilta (cf. *Orereta*-ren aldeko gurutzada, *Erreterria*-ren pareko edo gaineko paratze-ko), eta guk ez dugu oztoporik ikusten Nafarroan berdin jokatzeko, hutsetik abiatzen ez garenez gero (aipatu izen horiek harrera handia izan dute Nafarroako giro euskaltzaleetan; bestelakoetan ere bai *NHI* karrikara ateraz geroztik). Inoiz, gainera, oso bortitza litzateke atzera egitea, *Estella / Lizarra*-ren kasuan, erraterako, bigarrenak (*Lizarra*-k) iritsi duen harrera on eta erabilera-gatik, nahiz garbi dagoen hondarreko mendeotan nafar euskaldunek —hurbil nahiz urrutikoek— *Estella* ibili dutela, oraindik Ergoienean eta bestetan egiten den moduan. Honelakoetan hizkuntzaz kanpoko arrazoiei eman behar zaie lehenetasuna.

3.13. Beste alde batetik, kasu bakanen batean ez dugu oztoporik ikusten neologismoa onartzeko, baldin izenak bide egin badu: *Peralta / Azkoien*. Ho-



nelakoetan ez dugu arazorik ikusten, *NHI*-n egin zen bezala, *Azkoien* onartze-ko.

Jarraian irizpide zehatzagoak ikusiko ditugu, baina lehenago erran beharra dago, hastean aipatu bezala, euskarazko izentzat euskaraz hondarreko mendeotan ibili izan den aldaera hautatu behar dela, eskuarki —baina ez beti— euskal fonologiaren arauetara hertsikien jarraikitzen zaiena dena. Segidan azaltzen ditugun irizpideok “fonetikoagoak” dira honaino emandakoak baino, eta uste dugu gehientsuenetan aipatzea bera ere ez dela beharrezkoa, erran bezala euskarazko aldaeratzat azken mendeotan euskaldunok ibili izan ditugun aldaerak aukeratu direla erratearekin ia beti euskal fonologiaren erregelei jarraituz moldatu aldaerak ibiliko direla erran nahi baita. Nolanahi ere, eta zehaztasun zurrean, hona hemen irizpide zehatzago horiek:

3.14. Erdaraz bukaerako lekunean *-e*, *-o* duten izen batzuek *-i*, *-u* (izan) dute euskaraz: *Allo* / *Alu*; *Atallo* / *Atallu*; *Gallipienzo* / *Galipentzu*; *Mugaire* / *Mugairi*; *Murillo* / *Murelu*; *Pueyo* / *Puiu*... Ez beti, halere: *Beire* / *Beire* (cf. Uxueko *Beiremuga* mikrotoponimo historikoa), *Zubiri* / *Zubiri*. Honelakoetan euskaraz erabili diren bigarren aldaerak hobetsiko ditugu, *Allo* / *Alu*-ren kasuan, semantika kontuak tarteko, lehenaren alde egin behar dela uste badugu ere, hau da, *Allo* (edo *Allu* hibridoa agian).

3.15. Batzuetan erdaraz  $\emptyset$  dugu, eta euskaraz berriz bokala, hitz hasieran: *Lumbier* / *Irunberri*; *Redin* / *Erredin*; *Reparacea* / *Erreparatzea*; *Reta* / *Erreta*; *Riezu* / *Errezu*; *Ripa* / *Erripa*; *Roncal* / *Erronkari*. Honelakoetan, jakina, bigarren aldaerak hartuko ditugu euskal forma normalizatutako.

3.16. Inoiz *-ali* bukaera zaharrago batetik heldu den *-al* dugu erdaraz eta *-ari* euskaraz, Nafarroako ekialdean: *Bigüezal* / *Biotzari*; *Igal* / *Igari*; *Roncal* / *Erronkari*. Ez beti, halere: *Izal* / *Itzalle*. *Napal Napari* ote zen ez dakigu, eta beraz *Napal* utzi beharko dugu, nahiz Carrascoren *La Población de Navarra en el siglo XIV* lanean *Napari* bat ageri den, etimo berekoa datekeena, egungo Araba aldean. Honelakoetan ere, bistan denez, bigarren aldaerak hobetsiko ditugu euskararako.

3.17. Tarteka erdaraz sinkopa izandako aldaera ibiltzen da, berandu arteko dokumentazioan forma osoa agertzen den bitartean: *Astráin* / *Asterain*, *Azterain*; *Ezprogui* / *Ezporogi*; *Grocín* / *Gorozin*... Honelako kasuak hobeki aztertu behar genituzke, eta sinkopa jasandako aldaerak onartzeko arazorik izan behar ez bagenu ere —sinkopadun formak ugariak baitira goi nafarreran—, gure artean joera egon da eta dago forma osoak hobesteko, euskara batuan hizkera arrunterako egiten den bezalatsu.

3.18. Zenbaitetan erdaraz diptongoa dago, euskaraz horrelakorik ez dugularik: *Apardués* / *Apardoze*; *Bigüezal* / *Biotzari*; *Gallués* / *Galoze*; *Güesa* / *Gorza*; *Liédena* / *Ledeá*; *Lumbier* / *Irunberri*; *Murillo* (< *Muriello*) / *Murelu*; *Nardués* / *Nardoze*; *Navascués* / *Nabaskoze*; *Riezu* / *Errezu*; *Sangüesa* / *Zan-*

goza (ez \*Zangotza); *Sarriés / Sartze...* Honelakoetan bigarren aldaerak hobetsiko dira, hots, diptongorik ez dutenak. Bada, dena den, euskaraz ere diptongoa duen izenen bat, *Egues*, adibidez.

3.19. Inoiz euskaraz diptongodun edo gabeko aldaerak —edo biak— ibiltzen ziren seguru ez dakigu: *Tiebas / Tebas; Zarikegi / Zarikegi...* Honelakoetan praktikoen, argitasun gehiago lortzen ez dugun bitartean, izen ofizialetik —erdarazkotik— hurren dagoen aldaera hautestea dateke.

3.20. Bokal arteko *-n-* erorkorra duten izenetan sudurkaririk gabeko aldaerak hobetsiko dira: *Abintzao, Alduate* erabiliko ditugu, beraz, euskaraz, ez *Abintzano, Aldunate*; *Amillao*, ez *Amillano*; *Ardatz*, ez *Ardanatz*; *Bakedao*, ez *Bakedano*; *Dorrao*, ez *Torrano*, *Galdio*, ez *Galdeano*; *Gau(t)za*, ez *Ganuzza*; *Gollao*, ez *Gollano*; *Gulia*, ez *Gulina*; *Labio*, ez *Labiano*; *Larragoa*, ez *Larraona*; *Ledeo*, ez *Liedena*; *Otao*, ez *Otano*; *Taxoare* (kasu honetan *Taxore* aldaera eboluzionatuagoa ere ongi dokumentatua dago, beranduago), ez *Taxonare*; *Undio*, ez *Undiano*; *Urdaitz*, ez *Urdanitz*; *Urdotz*, ez *Urdanotz*; *Zolia*, ez *Zolina...* Arau hau orokorra da Hegoaldean, erran den bezala sudurkaria erorkorra den izenetan, zeren, izan ere, badira bestelakoak ere (cf. *Elkano*).

Gorago erran bezala *-ano-*dun zenbait izen euskaraz nola erran izen diren ez dakigu, ez baitugu lekukotasunik. Euskal eremuan egon diren nabarmenenak *Barindano* eta *Guirguillano* dira; *Arellano* eta *Otiñano* aspalditik daude erdaldundurik. Hemen sortzen zaigun arazoa hau da: lehenengo bi izenen kasuan analogiaz jokatu eta *Barindao*, *Girgillao* proposatu behar ditugu, dokumentaturik ez badaude ere, edo ikerketak aurrera egin arte itxoin behar dugu?

3.21. Zenbait herri izenek *-l-* dute bokal artean erdaraz (hasierako bokala galdu du baten batek), eta *-r* euskaraz: *Belascoáin / Beraskoain; Lumbier / Irunberri...* Honelakoetan *-r-*dun aldaera hobetsiko da. Alabaina, bakarren batek, inoiz *-r-z* dokumentatu arren, *-l-* izan du gehienetan erromantzez idatzitako agiritan, eta toponimo txiki euskaldunetan ere hala agertu ohi da. Hau da, konparaziorako, *Ilundáin / Ilundain* herri izenaren kasua, zein, gure irudian, *Ilundain* moduan normalizatu behar baitugu.

Sail honetan sartu behar genuke, zuzentzeko gure irudiko, erdaraz *Olóndriz* deitu izan dena, *NHI-n Orondritz* moduan eman zena. Hau Erroibarko euskaldunen artean *Olondritz* izan denez gero *-aldaera* normalizatua ematen dugu *Olondritz* proposatu behar genuke, nahiz azken urte hauetan *Orondritz*-ek bide egin dukeen.

3.22. Erdaraz kontsonante sabaikaria duten hizkuntza mugako herri batzuen izenek kontsonante bustigabea dute euskaraz: *Allo / Alu; Gallipienzo* (etxean beti *Galipienzo* aditu dugu guk, halaz ere) / *Galipentzu; Gallués / Galoze; Olleta / Oleta* (Orba). Honelakoetan, euskarazko aldaeratzat palatalizatu gabekoa hautetsiko dugu, gorago erran bezala *Allo / Alu*-rendako beste bide bat proposatu behar bada ere (ikus gorago).

3.23. Erdaraz ubulare igurzkarri ahoskabea duten izen batzuek euskaraz sabaiaurrekoa dute edo zuten: *Artajo / Artaxo; Artajona / Artaxo(n)a; Juarbe / Suarbe, Xuarbe; Mugetajarra / Mugetaxarra; Tajonar / Taxoare; Ujué / Uxue...* Honelakoetan euskarazko aldaeratako sabaiaurrekoa duten aldaerak proposatuko ditugu. Inoiz sabaiko afrikaria dugu euskaraz, erdarazko ubularen ordainetan: *Juslapeña / Txulapain*. Kasu honetan ere bigarren forma hotsikoa dugu euskal izentzat.

3.24. Nafarroako herri izenak normalizatzerakoan opatzen dugun beste arazo txistukariei —edo hobeki erran, txistukarien tratamenduari— dagokiena da. Ezaguna den bezala, Nafarroako alderdi zabal batean joera dago, euskaraz mintzatzean, gure herri izenetan hain arruntak diren *-as, -az, -iz, -os, -oz* bukaerak *-ats, -atz, -itz, -ots, -otz* egiteko, zenbaitetan joera hau moztortuxea badago ere. Hau da, absolutiboan batzuetan ez da aditzen —beste askotan bai— orain, baina bai gainerako (leku) kasuetan, hauek erdarazko izen ofiziala izan den kateatik pittin bat laxoxeago ibili baitira. Joera hau ere, erran bezala, aski zabalduko dago oraindik, eta badakigu antzina aise hedatuago zegoela, hots, euskara galdu den hainbat herri eta bailaratan ere indarrean zegoela. Horixe erakusten digute 1761eko *Ardachabidea*-k (Eguesibarko *Ardatz*-a, hau da, *Ardanatz*-a zihoan bidea zen hau) edo Elkanoko Lizarragak darabilen *Echalatzen* (*Etxalatzen*, jakina), hondarreko honen afrikariaren iturburu etimoan berean bila badaiteke ere.

Gure ustean, *NHI*-n egin zen bezala, analogiaz baliatu behar dugu beste-lako lekukorik ez dugun herri izenetan, eta afrikaria sartu, salbuespenak izan daitezkeen arren, eta ez bakarrik euskalkiaren kariatara.

Bestalde, aipatu lana karrikaratu zenetik orain arte euri franko egin du, eta ez dirudi hainbat kasutan atzera egitea komeni denik. Adibidez, gure iritzian Baztango herri izenak igurzkariz utzi beharrak dira, dauden bezala, eta *Aurtitz* ere *-tz*-z ematen segitu behar dugu, nahiz bertan bukaera afrikaririk ez den eza gutzen. Erran bezala, lanak bide egin du, eta pisu handiko arrazoirik ez denean gauzak dauden-daudenean uztea dateke egokiena, normalizazioa egin denean.

3.25. Baztango herri izenen normalizazioaz mintzatzerakoan oso inportantea da Baztango hizkerak eginkizun horretan hartu behar duen tokia zein den erabakitzea. Arazo hau aipatu ibar honetatik lekora ere opatzen dugu, afera orokorra baita. Kontua da, labur errate aldera, tokian tokiko hizkera eta mintzaoiturak zein heinetan errespetatu behar diren aztertzea, toponimoak normalizatzerakoan.

Teorian arazo handiegirik ez dago, erraza delako, toponimia txikian egin zen moduan, lekuan lekuko ezaugarri dialektalak begiratu behar direla erratea, baina gero praktikara igarotzean gauzak ez dira hain sinpleak izaten. Nolanahi ere, uste dugu bidea hori dela, eta, konparazione, *NHI*-n egin zen bezala Erronkariko herriak *Bidankoze, Erronkari, Urtzainki* edo *Uztarroze* normalizatu behar direla, ez *Bidangotz, Errongari, Urtzainki* edo *Uztarroz*.. Ildo beretik Za-

raitzun, erdaraz *Esparza* erraten dena euskaraz ere *Esparza* erran izan da, ez *NHI*-n ageri den *Espartza*.

Nolanahi ere, *Espartza* *Esparza* bihurtzen badugu orain (cf. *Gorza*), *Sartze* eta *Uskartze* ere *Sarze* eta *Uskarze* eman behar genituzkeela dirudi, eta bi herri izenon kasuan aldaera afrikaria ere bildua dugu. Kontua da zenbait gertakari fonetikok kendu-utzizkoak irudi dutela, hau da, eta ozen ondoko neutralizazioari doakionez, batzuetan burutzen dela eta beste batzuetan ez dela burutzen (cf. Iñaki Caminok gai honetaz dioena, *Aezkoako euskarari buruz*. *Ikus Aezkoako Euskararen Azterketa Dialektologikoa*, 358-359). Beraz, eta egoera osotara argia ez denez gero, izenok bidea egin baitute, dauden-daudenean uztearen aldekoak gara.

3.25.1. Aurrekoak ez du erran nahi, gorago erran dugun bezala, tokian tokiko edozein aldakuntza onartu behar denik (cf. *Arano* > *Aano*, *Leitza* > *Leitze*, *Aranon* eta *Leitzan*, hurrenez hurren, baina ez *Goizuetan*, edo *Amillao*, *Dorrao*, *Gollao*... ez *Amillau*, *Dorrau*, *Gollau*... Gipuzkoan, adibidez, *Lazkao* dugu, eta Bizkaian *Galdakao*, eta hauek ere kontuan hartzekoak dira), aldakuntzen arteko mailaketa eta kategorizazioa egiteko orduan arazo asko eskue-taritzen bazaizkigu ere, besteak beste hainbat gertakariaren antzinasunaren berri segururik ez dugulako, hedaduraz gehixeago dakigun arren.

3.25.2. Beste kasu bat Bortzirietako *Arantza* eta *Aientsa*-rena da. Hauek berez, gainerako herri gehientsuenetan ezarri den arauaren arabera, *Aranatz* eta *Aienats* izen behar lukete, baina, batetik, goiko izen horiek bide egin dute dagoeneko, eta, bestetik, inguru horretako bilakaera baten aurrean gaude (Andres Iñigoren *Toponástica Histórica del Valle de Santesteban de Lerín* lanean badira horrelako beste batzuk, toponimia txikian: *Mantxolat* > *Matxóltza*, *Totolat* > *Totóltza*...), eta, beraz, bertako ezaugarri dialektaltzat har daiteke.

3.26. Txistukariek bukaerako lekunetik kanpo daudenean ere arazoak sortzen dizkigute, normalizatzeko orduan. Ezaguna da ozen ondoan gure hizkuntzan dagoen igurzkariak eta afrikariak neutraltzeko joera, eta hau hizkera guztietan berdina (izan) ez den arren, Nafarroan zabalduena —bukaerako lekuneko txistukariek agitzen den gisan— afrikarien aldeko neutralizazioa dugu. Cf., adibidez, *Altsasu*; *Artzi*, *Artze*, *Beuntza*; *Eltso*, *Eltzaburu*, *Gartzain*; *Gartzaron*; *Jauntsarats*... eta beste, edo *Alchuchate* toponimo txikia (*Altzuza*, edo *Altzuta* dago honen oinarrian), irudi duenez *Altzutzate* batean oinarritua dagoena.

3.26.1. Guztiarekin ere, uste dugu herri izenak banan-banan aztertu beharrak direla, eta batez ere izen berean bi afrikari daudenean, kontuz jokatu beharra dagoela, nahiz eta asimilazioak ere eragina izan dezakeen. Adibidez, *NHI*-n *Abartzuza* eta *Altzuza* onartu ziren, ez *Abartzutza* eta *Altzuta*, etimologikoki —eta bigarrenaren kasuan baita dokumentalki ere— bi afrikari sarz-zeko arrazioak baldin baziren ere.

3.27. Beste batzuetan, hitz barruko lekuean eta ozen ondoan egon gabe, erdarazko aldaeran txistukari igurzkaria opatzen dugu, eta euskarazkoan afrikaria: *Berasain / Beratsain; Endarlaza / Endarlatsa; Erice / Eritze; Errazu / Erratzu; Erasun / Eratsun; Idozin / Idotzin; Iza / Itzalle; Izalzu / Itzaltzu; Leiza / Leitza; Osakain / Otsakain; Osakar / Otsakar...* Bestelakoak ere badira, ordea: *Beasoain, Latasa, Legasa, Lezaun; Lezaeta; Lozen...* Kasu hauetan, erran beharrik ez legoke, bigarren aldaerak hobetsi beharko ditugu, euskarazko formatako.

Afrikaria maiz horrelako soinua duen atzizkiari zor zaio: *Ciaurriz / Ziaurriz; Iza / Itza; Loza / Lotza; Oteiza / Oteitza; Urriza / Urritza...* *Leiza / Leitza* ere bigarren multzo honetan sailkatu behar genuke, agian.

3.28. Txistukari igurzkari bizkarkariak herskari horzkari aurrean Nafarroako -eta bestetako-zenbait hizkeratan, erdi aldekoetan bereziki, apikaritzeko joera izan du, mihi-puntako (-s) bihurtzeko, nahiz beste askotan honelakorik ez den izan, eta ez den orain ere. Hau puntu delikatu den arren, uste dugu ahal delarik berdin jokatu behar dela, bestelako arrazoirik ez dagoen bitartean, eta, beraz, *Asterain, Badostain, Ustarrotz* proposatu behar direla, *Estenotz* eta *Ostitz*-en oinatzetan. Hau, jakina, kasu gutxi batzuetan ezarri beharko dugu, beste askotan -zt- multzoa ongi gordetzen delako: *Amezitia; Baztan; Uztarroze; Uztegi...*

3.29. Herskari belarea denean mihi-puntako egiteko joera aise txikiagoa izan da (cf. *Azkarate, Ezkaroze, Ezkurra...*), kasuren batean -s- badugu ere (cf. *Esquíroz*. Galarkoa, halere, XVIII. mendearen bukaeran oraindik -z-z dokumentatzen da), eta bizkarkariari eutsi behar zaiola uste dugu.

3.30. Zenbaitetan etimologikoki loturik (bide) dauden bi herri izen ditugu, bata bakuna —itxuraz bederen— eta bestea bakuna ez dena, hots, beste elementuren bat baduena. Kasu honetan daude, adibidez, *Anoz / Anozibar*, eta *Orbaiz / Orbaizeta* pareak. Kontua da aldaera bakun horiek afrikaria dutela edo zutela, eta, beraz, eta zegokien moduan, euskaraz *Anotz* eta *Orbaitz* normalizatu zirela, forma elkartu-eratorriak afrikariz ebaki ez diren bitartean, ditugun datuen arabera. Honelakoetan zuhurrena *Anotz* eta *Orbaitz* baina *Anozibar* eta *Orbaizeta* normalitzea dateke.

3.31. Beste arazoa aspaldi samarretik euskararen lurraldea izan denetik kanpo dauden izenek sortzen digute, *Falces* edo *Marcilla*-k, konparazio baterako. Hauek gure ustez, eta euskaraz erabili behar direnean, *Faltzes* eta *Martzilla* idatzi behar lirateke, Nafarroan nagusi ageri zaigun aipatu joerari jarraikiz, hemengo euskaldun gehienek horrela ebakitzen dituztelako.

3.32. Normalizazioa egiterakoan aurkitzen dugun beste arazo bat *NHI*-n *N.t.e.e.c* moduan eman zirenek sortzen dutena dugu. Hauetako batzuk euskaraz nola ziren berriki ikasi dugu, Nafarroan egin den toponimia txikiaren bilketa lanari eta besteri esker, eta, adibidez, orain badakigu *Mendavia Mendabia* zela,

eta *Tafalla Tafalla*. Beste kasu batzuetan (*Caseda, Santacara*) informazioa lehenago ere bagenuen, baina ez zen aintzako hartu, eta *N.t.e.e.c*-tzat eman ziren.

*N.t.e.e.c*. hauen normalizazioa egiterakoan gure iritzian hiru multzo egin behar dira:

a) Aurreneko multzoan toponimia txikiari esker euskaraz ibili izan direla badakizkigunak sartu behar ditugu: *Kaseda, Mendabia, Santakara, Tafalla...* Hauetan, euskal ortografia ibiltzeko oinarria badugu, beraz.

b) Bigarren multzoan gorago aipatu ditugun *Faltzes* eta *Martzilla*-ren gisakoak daude, hau da, Nafarroako euskaldun gehienek hizkeran nolabaiteko aldakuntza fonetiko nozitzen dutenak, erdarazkoen aldean. Puntu honetan eztabaidatu beharrekoa dateke *Cintruénigo*-ren modukoak ere aldatu beharrak diren, alegia, hasierako txistukaria euskaraz ihardukitzean euskal erara ematen denez gero, euskaraz z-z idazteko adinako oinarria ba ote dugun.

c) Hirugarren multzoan azentuatze aldeak izanagatik ere fonetikoki beselako aldaketarik jasaten ez dutenak sartzen dira. Hemen gainerako guztiak ditugu: *Cadreita, Caparrosa, Cárcar, Cascante, Castejón, Corella, Cortes, Murchante...* Hauen kasuan uste dugu *N.t.e.e.c*. eman beharrez erdarazko formak eman behar direla, irudiz bi konponbideok antzetsukoak badira ere, praktikan alde ederra baitago batetik bestera. Gainera, kasu askotan grafia ere ez da aldatzen erdaraz idatzi edo euskaraz idatzi: *Ablitas, Buñuel, Funes, Fustiñana, Monteagudo, Milagro, Sesma...* Uste dugu *N.t.e.e.c* horiek kentzea inportantea dela euskaraz egokiro lan egin ahal izateko lehenik, eta izan diren gehiegikeria batzuk (oroitu *Erripazuloaga-z*) saihesteko gero.

3.33. Bukatzeko erran nahi dugu badirela Nafarroan bukaeran -a kendu-utzizkoa —mugatzaila— duten zenbait herri izen, eta *NHI*-n ez direla diren guztiak azaltzen: *Abaurregaina, Abaurrepea, Alkasoaldea, Aramendia, Andia, Aroztegia, Arreko Trinitatea, Arribiltoa, Azkilarrea, Basaburua, Beuntza-Larrea, Bordalarrea, Bortziriak, Dantxarinea, Iruñerria, Itzagaondoa, Eguzkialdea, Elizagorria, Ergoiena, Erreparatzea, Estellerria, Etxartea, Iruñea, Kintoa, Lizarragabengoa, Lurriztiederra, Mendigorria, Ziordia, Zizur Nagusia, Zizur Txikia.*

Batzuk oraindik argitzeko daude: *Goñerri(a), Olaldea, Otsagabia, Pika-tua, Zufia...* Kasuren batean bada hutsen bat *NHI*-n: Urdazubiko *Telleria*-k -a berezkoa du (cf. erdarazko *tejería* hitza), ez jantzi-erantzikoa, eta *Biguria* ere ez dirudi goiko talde horretan ere sartu behar denik.

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak,  
1997ko urriaren 10ean,  
Errenterriako Udaletxean, onartua